

Sarrera

Gaztelueta Fundazioa zoriondu nahi dugu *Hezkuntza Eleaniztunari buruzko IV. Jardunaldi* hauek antolatzeagatik. Ekimen horri esker, honezkero, erreferentzi puntu batez hitz egin dezakegu, bai eta halako tradizio batez mintzatu ere hezkuntza eleaniztunari euskaldunok eginiko ekarpenari dagokionez. Kanpoko partehartzeak ezinbestekoak dira beti kontrasteak ezartzeko eta ikerketa-ekintzarako bide berriak sortzeko, hezkuntzaren esparru oraindik espermental honen arazo zahar eta berriei ekiteko xedetan. Tokiko lanen garapen-maila ondo kontrastatua eta egokia dela dirudi, euskal gizartea eskatzen ari den hezkuntza eleaniztunaren erronkari aurre egiteko modukoa, bai lanari argitasunez ekiteko eta bai arrakastatsu irteteko bermearen aldetik ere.

Hizkuntz eskakizun estuak dituen lurralde txiki batean nola lan egin erakusten digu era bikainez **Piero Florisek** aurkezturiko lanak. Floris Lehen Hezkuntzako Ikuskatzailea eta hizkuntz plangintzaren alorreko arduraduna da Aosta Haranean (Italia). Hezkuntz autonomiaz hornituriko eskualde hartan, bi eskola-hizkuntza –italiera eta frantsesa– erabili eta irakasten diraaldi berean, eraginkortasun frogatua duen metodologia berritzailearen bidez. Lan honen egileak hainbat punturen garrantzia nabarmentzen du behin eta berriro: hizkuntzaren didaktika egokia, sekuentzietako programazioaren printzipioak, ebaluaketa, eskola-tresneriaren balio erabakigarria, etab. Halaber, irakaslegoaren partaidetza eta prestakuntza-formula burutsuak azpimarratzen ditu, hala nola “miniazoka didaktikoak” deiturikoak; halakoek irakaslegoaren inplikazioa bideratzen dute, eskuhartze hori ezinbestekoa baita edozein hezkuntz erreforma aurrera eraman ahal izateko, bereziki hezkuntza elebidun edo aniztunari dagokiona.

Florisen ekarpenaren ildotik, bere hezkuntz ereduarekin koherente izanik, lan hau italiaraz eta frantsesez aurkeztu duela nabarmendu nahi dugu. Hori azpimarratzea interesgarria iruditu zaigu zeren eta hizkuntza desberdinak lan berean aldizkatzeko joera hau, adituei zuzenduriko liburu honetan egiten dugun bezalaxe, gero eta ohikoagoa izango baita Europan, programa elebidun eta eleaniztunak gero eta ohikoago eta naturalagoak izango diren neurrian.

Kanpoko bigarren ekarpena Bartzelonako Unibertsitateko Joaquim **Arnau** irakaslearen eskutik dator. Esperientzia luzea du irakasle honek ikerketa psiko-pedagogikoaren alorrean eta egiten ari den ikerketa interesgarri eta xehe baten datuak dakartza oraingoan. Kataluniako murgiltze-programetako irakasleak erabiltzen dituen oinarri teorikoak eta praktikoak aztertzen ditu aipaturiko ikerketak. Zalantzarik gabe, garrantzitsua da irakasleak oinarritzen diren printzipio errealak ezagutzea, baldin eta jokaerak eskakizun berriei egokitu nahi baditugu, zeren eta eskakizun horiek ez baitatoz beti bat indarrean diren ideiekin (eta aurreiritziekin).

Nabarmendu egin nahi dugu **Leo Van Lier**, Kaliforniako Monterey Institute of International Studies-eko irakaslearen txostena: "Baliabide tekniko berriak eta irakasleen prestakuntza-beharrak". Gogoeta garrantzitsuak eta irakasleen prestakuntzan aditu gisa buruturiko esperientzia luzearen ondoren bilduriko datu-kopuru handia dakarza Leo Van Lier-ek. Bai haren curriculumak, bai teknologia berriak, teoriarik bederen, gure artean baino normaltasun handiagoz erabiltzen diren EEBBetatik datozela kontuan harturik, garrantzizkoa deritzagu haren gogoetak kontuan hartzeari. Baliabide informatikoez egiten duen analisi realista eta, partez bederen, desmitifikatzaileak baliabide horien balio zehatzari antzematea ahalbidetzen du. Izan ere, garrantzitsuak dira bai eta beharrezkoak ere, baldin eta programazio ongi planifikatuaren zerbitzuan ezartzen badira. Berak adierazi zuenez, "Lehenbizi pedagogia dator, curriculumak da bigarrena, eta teknologia hirugarrena".

Teknologia berrien inguruan **Sierra Orrantia**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikariaren ekarpenek, eta Mondragon Unibertsitateko **Sagasta** eta **Usabiagak** egindakoek ageriko interesa dute, hizkuntzak lantzeari buruzko partehartze berrizale eta bidezkoen erakusgarri gisa. Horiek, alabaina, **Van Lier**-ek gorago deskribaturiko printzipioen barne kokatu behar dira.

Kanpoko partaidetzari berriro lotuz, Kaliforniako Unibertsitateko (Santa Cruz) **Aída Walqui** irakaslearen lana azpimarratu beharrean gaude. Egile horrek ondo ezagutzen du amerikar gizartea, hala Iparraldekoa nola Hegoaldekoa, peruarra baita bera. Lan honetan, Estatu Batuetan programa elebidunak garatzen diren testuinguruei buruzko –zehazkiago, hizkuntza minorizatueta mintzo diren jende-taldeei zuzenduriko programei buruzko– analisi fina burutu du. Haren txostenak, izenburuak adierazten duenez, irakaslearen prestakuntza ukitzen du bereziki eta, sail horren inguruan, oharpen interesgarriak eta balio programatikoko handiko ikasketei buruzko datuak eskaintzen ditu, horiek guztiak gure gizartera eraman daitezkeenak izaki. Adibidez, aipatzen dituen txosten horietariko batek frogatu egiten du, ikasleen lorpenei begira, askoz eragin handiagoa duela irakaslearen prestakuntzan egindako inbertsioak, ezen ez irakasle bakoitzeko ikasle-kopurua edo eskolaren tamaina murrizteak. Bere gogoeta eta datuek hipotesi eta susmo sendoak egiaztatu ditu, gure artean oraino formulatu ez badira ere. Eta horretan datza ikertzaile honen lanaren garrantzi erantsia.

Quebec-eko Laval University-ko **Josianne Hamers** izan zen Jardunaldi hauetako azken kanpoko txostena irakurri zuena. Elebitasunari buruz idatzi duten kanadiar autore klasikoetarikoa bat da Hamers, gure artean batez ere "Bilingualité et bilinguisme" (Mardaga, 1983) obragatik ezaguna (M. Blanc-ekin elkarlanean argitaratua). Hitzaldi honetan aztertutako faktoreak egun ere erabateko gaurkotasuna izaten jarraitzen du: hezkuntza eleaniztunaren eragina haurren garapenean. Hala beraz, garapenean eta hezkuntza elebidun edo eleaniztunaren arteko korrelazioaren alderdi desberdinak aztertu dituzten lanen sintesi guztiz kunplitu eta gaurkotua eginik, frogatzen du nola hezkuntza mota hori beti onuragarria den, baldin eta printzipio jakin batzuk errespetatzen badira, hots, elebitasun horrek gehigarria izan behar duela, eta ez murrizgarria. Gainera, gehiengoaren hizkuntzaren jabe diren jende taldeek onurarik gehien aterako lukete, baina, bestalde, hizkuntza txikitako komunitateek tratamendu arretatsuagoa behar dute elerditasunean ez erortzeko. Sintesi bikaina.

Halaber, **Angel Huguet Canalis**-en lan interesgarria aipatu beharrean gaude. Horren gaia: hizkuntzen tratamendua Aragoiko Komunitatean. Guztiz probetxugarria da testuinguru hura ezagutzeko, tokiko hizkuntzak eta espainiera elkar ukitzen aurkitzen diren beste egoera bat baita hura, eta "harrigarri" badirudi ere, oso gutxi ezaguna Espainiar Estatuan bertan.

Hirugarren hizkuntzaren sarrera da tokiko hitzaldi gehien aztergaia. Hori baita, izan ere, hezkuntza esperientzia berriena euskal hezkuntza sisteman. Haur eta lehen hezkuntza

mailako hainbat ikastetxetan ingelesa hirugarren hizkuntza gisa sartzeko burutzen ari den programazioa erakusten du **Saro Manriqueren** (CIM/AHIZKE S. Coop.) lanak.

Ikastolen Federazioko **Xabier Garagorrik**, bere aldetik, haur hezkuntzatik ingelesa hirugarren hizkuntza gisa sartzeara erabaki duten ikastoletako programazioaren teoria eta antolaketa oinarriak eskaintzen ditu. 1991n zenbait ikastolatan abiatu eta egun 47 ikastetxetako 8.500 haur inguru ukitzen dituen esperientzia honek gizarte-eskaeraren neurri eskerga ematen du aditzera. Garagorri irakasleak halako tamaina duen esperientziari ekiteko behar diren baldintzak planteatzen ditu; hartarako sortu diren materialak erakusten ditu eta, iritsi beharrek lorpenak sorturiko itxaropenekin adostuko badira, programazio serioaren zein esperientziaren jarraipen zorrotzaren premia azpimarratzen du. Emaitzez hitz egiteko goiz bada ere, hezkuntza eleaniztuna, antza denez, gurasoek zein ikastetxeek hain bereturiko erronka da, non atzera itzultzerik ez dagoen. Hortik dator Garagorriren gogoetaren garrantzia.

Txingudi Ikastolan ingelesa hirugarren hizkuntzatzat hartu ondoren burutzen ari den esperientzia aurkeztzen dute **Rosa M^a Arano** eta **M. Josune Ugartek**. Ingelesa 8 urte bete arte sartzeko ez duen ikastetxe hori aitzindaria izan da hiru hizkuntzen programazio integratu eta osagarriaren tratamendu sistematikoan. Are beren material propioa ere sortu dute, sekuentzia didaktikoak lantzeko edo hizkuntzen ikasketa testualean zentratutako proiektuei begira. Orobat, prestakuntza eta ebaluaketa programa zorrotza du ikastetxe horrek. Biziki interesgarria iruditzen zaigu beren programazio/ebaluaketa propioa burutzeko gai diren ikastetxeak izatea, batez ere irakaskuntza eleaniztuna bezain alor esperimentalaz ari garelarik.

Ikastetxe guztiek beren ikastetxe-diseinua eta plangintza didaktikorako diseinu propioa burutzerakoan behar duten autonomia-iharduera horren beste erakusgarri bat da **Maribel Valeroren** lanak aurkeztzen duena. Eskibel Ikastetxean, irakurketa hiru hizkuntzetan –gazteleara, ingelesa eta euskara– lantzea helburu, aurrera daraman programazioa erakusten du lan honek.

Euskal Herriko irakaskuntza eleaniztunari buruzko azkeneko artikulua Euskal Herriko Unibertsitateko **Jasone Cenoz** irakasleak aurkezturikoa da. Eskolatzeko eleaniztun goiztiarra da haren hausnarketaren xedea eta datu batzuk dakartza zenbait alderdi garrantzitsuren inguruko ikerketen ebaluaketaz: eleaniztasunaren eragina hizkuntza eta ezaguera-garapenean, eleaniztasunaren aurreko jarrerak, garapen profesionala, errendimendua ingeles hizkuntzan, etab. Halaber, gure komunitateko ikastola batean egiten ari den ikerketa bati buruzko informazioa dakar; horrek datu propioak emango ditu eta bestelako egoeretatik datozen datuekin kontrastatu ahal izango dira. Ez du behin-betiko ondoriorik aldarrikatzen, baina bai iradokitzen eleaniztasunari hurbiltzeko beste bide batzuk izan daitezkeela, sarrera goiztiarraz bestalde.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den **Luis M. Larringanen** lanak hizkuntzaren kalitateaz dihardu. Euskararen normalizazioarekin zerikusia duten gaietan polemikoenetako bat berau, eta hezkuntzaren eremuan ondorio bereziak dituena. Arauen aplikazio gutxi-asko zorrotzetik harago doa Larringanen hausnarketa. Hizkuntzaz eta hizkeraren programazioaz planteatzen duen kontzeptzioaren arabera, kasu bakoitzean garatu nahi diren gaitasunekin adosturik joan behar du programazioak. Horretara, bai minorizatua eta bai araudi ez oso sendotuaren jabe den hizkuntza baten ikasketa masiboak sortzen dituen gatazkak hobeto ulertzen laguntzen du halako ikuskera batek. Hain zuzen ere, araudi ahalguztiduna hautabide bakarra dutelarik, gure politikariek eta inguruko hizkuntza orotako akademiko tradizionalak erabili ohi dituzten "soinekoak urratze eta ohartarazte" horien antzutasuna gainditzea gutziz garrantzizkoa iruditzen zaigu.

Mondragon Unibertsitateko irakasle den **Mariam Bilbatuak** euskararen irakaskuntzan garaturiko metodo eta programazioen bilakaeraren sintesi egokia aurkeztzen du. Haren azter-

ketak euskara ikasteko metodoak, programa ofizialak eta testu liburuak hartzen ditu barne. Ildo horretatik, azpimarratzekoa da Debako eskualdean –eskolako murgilketa oinarri harturik– garatzen ari den euskara ikasteko esperientzia.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle **José M. Madariaga Orbeak** gizarte jarreraren eta irudipenen mundu konplexua ikertzen du gure hezkuntz sistemaren eta/edo gure haur eta gazteen elebidun bihurtze-prozesua hobeto ulertzearen. Zalantzarik gabe, metodoez gain, programazioez gain, irakaslegoaren ezagupen maila eta prestakuntza didaktikoaz gain, askoz ere garrantzitsuagoa da euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren arrakastari begira, euskarari buruz eta elebitasun edo eleaniztasunari buruz gizarteak duen ikuskera. Gure gizartean ikusten diren jarrerak eta hizkuntzen erabilerari buruzko jarraibideak ulertze-ko, interesgarriak dira oso Madariaga burutzen ari den horren antzeko azterketak.

Aurkezpena amaitzeko, berriro azpimarratu behar dugu gure hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzearen alde **Gaztelueta** Fundazioak egindako lanaren egokitasuna. Izan ere, hezkuntza eleaniztunaz hainbat ikuspegitatik gogoeta egitea, etxeko eta kanpoko ikerketen datuak konparatzea eta esperientzia eta bizikizun desberdinetatik datozen iritziak gure tesuingurukoekin kontrastatzea ezinbestekoa dugu, baldin eta gure komunitatea hain indartsu exijitzen ari den hizkuntz trebakuntzarako hezkuntz eskariari gero eta erantzun doiagoak ematen jarraitu nahi badugu

Itziar Idiazabal

Eusko Ikaskuntzaren Hezkuntza Saileko Lehendakaria

Introducción

Queremos felicitar a la Fundación **Gaztelueta** por organizar estas *IV Jornadas sobre Educación Plurilingüe*. Gracias a esta iniciativa ya podemos hablar de un punto de referencia y de una cierta tradición en las aportaciones vascas a la educación plurilingüe. Las intervenciones externas resultan siempre indispensables para establecer contrastes y generar nuevas vías de investigación-acción para poder abordar viejos y nuevos problemas de este ámbito de la educación que sigue siendo experimental. El grado de desarrollo de los trabajos locales nos parece suficientemente contrastado y pertinente como para afrontar con lucidez y garantías de éxito el reto de la educación plurilingüe que demanda la sociedad vasca.

El trabajo que presenta **Piero Floris** es una excelente muestra de cómo trabajar en un territorio pequeño con demandas lingüísticas exigentes. Floris es Inspector de Enseñanza Primaria y responsable de la planificación en materia de lenguas del Valle de Aosta (Italia). En aquella región con autonomía educativa, se utilizan y enseñan simultáneamente dos lenguas escolares: el italiano y el francés, con una metodología innovadora y de probada eficacia. En este trabajo el autor insiste en la importancia de una didáctica correcta de la lengua, de los principios de programación en secuencias, de la evaluación, del valor crucial del material escolar, etc. Resalta, asimismo, ingeniosas fórmulas de participación y formación del profesorado como las llamadas “miniferias didácticas” que permiten la implicación del profesorado, imprescindible para poder desarrollar cualquier reforma educativa, y especialmente la que se refiere a la enseñanza bilingüe o plurilingüe.

Al hilo de la contribución de Floris, queremos resaltar que su trabajo, en coherencia con su modelo educativo, se presenta en italiano y en francés. Nos parece interesante reseñarlo porque esta circunstancia de simultanear diferentes lenguas en un mismo trabajo, tal como lo hacemos en este libro para especialistas, tenderá a ser habitual en Europa en la medida en que los programas bilingües y plurilingües vayan siendo cada vez más habituales y naturales.

La segunda contribución externa la presenta el Profesor **Arnau** de la Universidad de Barcelona. Su larga experiencia en la investigación psico-pedagógica aporta datos de una interesante y minuciosa investigación en curso que analiza los presupuestos teóricos y prácticos con los que actúa el profesorado de programas de inmersión en Cataluña. Indudablemente es importante conocer los principios reales en los que se apoyan los profesores si queremos que las actuaciones se adecuen a las nuevas exigencias que no siempre son acordes con las ideas (y prejuicios) vigentes.

Queremos resaltar la ponencia del profesor **Leo Van Lier** del *Monterey Institute of International Studies*, de California sobre “Nuevos medios técnicos y necesidades de formación de los profesores”. Aporta importantes reflexiones y gran cantidad de datos acumula-

dos tras su larga experiencia como experto en formación de profesores. Nos parece importante tener en cuenta sus argumentos dado su curriculum y viniendo de un país como los EE.UU. en donde, al menos en teoría, se utilizan las nuevas tecnologías con mayor normalidad que entre nosotros. Un análisis tan realista y en parte desmitificador de los medios informáticos permite apreciar exactamente su valor. Efectivamente son importantes e incluso necesarios siempre y cuando estén al servicio de programaciones bien planificadas. Tal como él mismo señala "Primero viene la pedagogía, segundo viene el currículo y tercero la tecnología".

Las aportaciones de **Sierra Orrantia**, técnico del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, y de **Sagasta y Usabiaga** de la Universidad de Mondragón sobre tecnologías nuevas, tienen un interés evidente como muestras de intervenciones novedosas y pertinentes para trabajar las lenguas. Pero es preciso englobarlas dentro de los principios antes descritos por Van Lier.

Siguiendo con las intervenciones externas, destacamos el trabajo de la profesora **Aída Walqui** de la Universidad de California, Santa Cruz. Esta autora que conoce bien la sociedad americana, tanto la del Norte como la del Sur, no en vano es ella peruana, realiza un fino análisis de los contextos en que se desarrollan los programas bilingües en Estados Unidos y más específicamente los destinados a poblaciones que hablan lenguas minorizadas. Su ponencia, como indica el título, se centra en la formación del profesorado y es para este ámbito para el que ofrece interesantes observaciones y datos de estudios de gran valor programático que pueden ser también trasladados a nuestra sociedad. Por ejemplo, cita un informe en el que se demuestra cómo la inversión en formación del profesorado influye mucho más en el incremento de los logros académicos de los estudiantes que la inversión en disminuir el número de alumnos por profesor o reducir el tamaño de la escuela. Sus reflexiones y datos confirman hipótesis y sospechas fundadas pero que no han sido todavía formuladas entre nosotros. De ahí la importancia añadida de este trabajo.

La última ponencia extranjera de estas jornadas la impartió la profesora **Josianne Hamers** de *Laval University*, Quebec. Ella es una de las autoras canadienses clásicas de la literatura sobre bilingüismo, conocida entre nosotros gracias, fundamentalmente, a su excelente obra "Bilingualité et bilinguisme" (Mardaga, 1983) publicada en colaboración con M. Blanc. El factor que estudia en esta intervención sigue siendo de absoluta actualidad: La influencia de la educación plurilingüe en el desarrollo de los niños. A través de una síntesis muy completa y actualizada de trabajos que estudian diferentes aspectos del desarrollo en correlación con la educación bilingüe o plurilingüe demuestra cómo ésta resulta siempre beneficiosa si se respetan ciertos principios; es decir, si el bilingüismo es aditivo y no sustractivo. Las poblaciones de hablantes mayoritarios serían además las más beneficiadas, siendo las comunidades de hablantes minorizadas las que, por otro lado, necesitan un tratamiento más cuidadoso para evitar caer en el semilingüismo. Una excelente síntesis.

Citamos también el interesante trabajo de **Angel Huguet Canalis** sobre el tratamiento de las lenguas en la Comunidad Aragonesa. Resulta muy útil para conocer aquel contexto que también tiene una situación de contacto de lenguas propias y español pero que "sorprendentemente" es muy poco conocida incluso en el propio Estado Español.

La introducción de una tercera lengua es el objeto de estudio de la mayoría de las intervenciones locales. No en vano constituye ésta la experiencia educativa más novedosa del sistema educativo vasco. El trabajo de **Saro Manrique** de CIM/AHIZKE S. Coop. muestra la programación que se está llevando en diferentes centros en los niveles de educación infantil y primaria para introducir y trabajar el inglés como tercera lengua.

Xabier Garagorri de la Federación de Ikastolas, ofrece a su vez los principios teóricos y organizativos en los que se fundamenta la programación del inglés tercera lengua en las ikastolas que han optado por introducirla desde la educación infantil. La experiencia iniciada en 1991 con algunas ikastolas y que actualmente integra hasta 8.500 niños de 47 centros, indica que la demanda social es enorme. El profesor Garagorri plantea las condiciones necesarias para emprender una experiencia de tal envergadura; muestra los materiales que se han creado para ello e insiste en la necesidad de una programación seria y un seguimiento riguroso de la experiencia para que los logros se correspondan con las expectativas creadas. Si bien es pronto para hablar de resultados, parece que la enseñanza plurilingüe es ya un reto tan asumido por padres y centros que no cabe la marcha atrás. De ahí la importancia de la reflexión de Garagorri.

Rosa M^a Arano y **M. Josune Ugarte** presentan la experiencia que está llevando a cabo la Ikastola Txingudi para el tratamiento del inglés como tercera lengua. Este centro, que no introduce el inglés hasta los 8 años, ha sido pionero en el tratamiento sistemático de la programación integrada y complementaria de las tres lenguas. Ellos han elaborado incluso su propio material para el trabajo de secuencias didácticas o proyectos centrados en el aprendizaje textual de las lenguas. Asimismo cuenta este centro con un programa de formación y de evaluación riguroso. Nos parece especialmente interesante el que haya centros con capacidad para llevar a cabo su propia programación/evaluación, especialmente en este campo tan experimental como es la enseñanza plurilingüe.

El trabajo de **Maribel Valero** es otra muestra del ejercicio de autonomía que deben realizar todos los centros escolares para elaborar su propio diseño de centro y de planificación didáctica. Muestra la programación que lleva a cabo el Colegio Eskibel para trabajar la lectura desde tres lenguas: castellano, inglés y euskera.

El último artículo sobre la enseñanza plurilingüe en el País Vasco está presentado por la Profesora **Jasone Cenoz** de la Universidad del País Vasco. Reflexiona sobre la escolarización plurilingüe temprana aportando datos sobre la evaluación de investigaciones que referidos a aspectos importantes: el efecto del plurilingüismo en el desarrollo lingüístico y cognitivo, las actitudes hacia el bilingüismo, el desarrollo profesional, el rendimiento en inglés, etc. Incluye además información de una investigación que se está realizando en una ikastola de nuestra comunidad y que podrá aportar datos propios para contrastarlos con los que provienen de otras situaciones. No adelanta conclusiones definitivas pero deja entrever que puede haber otras vías para acceder al plurilingüismo que no pasen necesariamente por su iniciación temprana.

El trabajo de **Luis M. Larrigan**, profesor de la Universidad del País Vasco sobre la calidad de la lengua aborda uno de los temas más polémicos en relación con el proceso de normalización del euskera y que repercute especialmente en el ámbito de la educación. Su reflexión sobrepasa la discusión de la aplicación más o menos rigurosa de la normativa. Plantea una concepción de la lengua y de la programación del lenguaje que debe ser acorde con las capacidades que se quieren desarrollar en cada caso. Esta visión permita entender mejor los conflictos que genera el proceso de aprendizaje masivo de una lengua que además es minorizada y con una normativa todavía poco consolidada. Nos parece muy importante superar la esterilidad del “rasgarse las vestiduras y llamamiento al orden” al que nos tienen acostumbrados los políticos y académicos tradicionales de todas las lenguas de nuestro entorno, cuya única alternativa es la normativa todopoderosa.

Mariam Bilbatua, profesora de la Universidad de Mondragón, presenta una buena síntesis de la evolución de los métodos y programaciones desarrollados para la enseñanza del euskera. Su análisis incluye los métodos de euskera, los programas oficiales y los libros de

texto. Destaca además la experiencia de aprendizaje del euskera que se está desarrollando en la comarca del Deba, basada en la inmersión escolar.

José M. Madariaga Orbea, profesor de la Universidad del País Vasco indaga en el complejo mundo de las actitudes y representaciones sociales para entender mejor el proceso de bilingüización de nuestro sistema educativo y/o de nuestra población infantil y juvenil. Indudablemente, además de los métodos, de las programaciones, del nivel de conocimiento y de preparación didáctica del profesorado, la visión social del euskera y de la capacitación bilingüe y plurilingüe, tiene mucha importancia en el mayor o menor éxito del proceso de normalización del uso del euskera. Para entender mejor las pautas de comportamiento y de uso de lenguas que se observan en nuestra sociedad son muy interesantes estudios como los que está llevando a cabo Madariaga.

Para concluir esta presentación insistimos de nuevo en la pertinencia de la labor realizada por la Fundación **Gaztelueta** para mejorar la calidad de nuestro sistema educativo. Reflexionar en torno a la educación plurilingüe desde diferentes puntos de vista, comparar datos de investigaciones propias y ajenas y contrastar opiniones que provienen de experiencias y vivencias diversas en nuestro propio contexto es indispensable para seguir dando respuestas cada vez más afinadas a esa demanda educativa de capacitación lingüística que exige nuestra comunidad con tanta fuerza.

Itziar Idiazabal

Presidenta de la Sección de Educación de Eusko Ikaskuntza